# 50. URTEURRENEKO LIBURU ETA DOKUMENTALA

## URTARRILAREN 19AN AURKEZPEN EKITALDIA 18:00ETAN KASINOAN

*Oporren aurretik iragarri bezala, urtarrilaren 19an, osteguna, Laudio Ikastolaren 50. urteurreneko liburu eta dokumentala aurkeztuko ditugu Lamuza parkeko Kasinoan 18:00etan. Ikastolako hezkuntza komunitate osoa bertora hurbiltzeko gonbidatzen zaituztegu.*

*Liburuak Ikastolaren orain arteko ibilbidea islatzen du urte guzti hauetan guraso, langile zein ikasle aritutako hainbaten testigantzatatik abiatuta eta garai ezberdinetako argazki bilduma batez lagunduta. Bere erredakziorako bildutako testigantzak baliatuta, dokumentala ere osatu dugu.*

*Aurkezpenean liburuaren erredakzioa zuzendu duen Txabi Alvarado Bañares ikasleohiak proiektuaren ardatz nagusiak azalduko ditu eta liburu-rako bildutako testigantzekin osatutako dokumentalaren estreinaldia ere burutuko da.*

### EGUTEGIA

*Liburuaren argitalpena osatuz, aurtengo Ikastolako egutegia ere libururako jasotako argazkiekin irudiztatu dugu.*

*Horrez gain kantutegi interaktibo txiki bat txertatu dugu egutegian, euskarazko betiko kantuen hitzak eta internet bidez entzuteko QR loturak uztartuz.*




## 50. URTEURRENEKO LIBURU ETA EGUTEGIA SALGAI

*Liburu eta egutegiak salgai ditugu Ikastolako idazkaritzan 15 euroan liburua eta 10 euroan egutegia; biak batera erosiz gero, 20 euroan.*

*Ordainketa momentuan egin ahal izango da esku diruz edo bestela Ikastolako erreziboaren bidez.*

**eskaera egin**

LAUDIO ikastola

2023/01/10

# LIBRO Y DOCUMENTAL DEL 50 ANIVERSARIO

## PRESENTACIÓN EL 19 DE ENERO A LAS 18:00 EN EL CASINO

*Como anunciamos antes de vacaciones, el 19 de enero, jueves, presentaremos el libro y documental conmemorativo del 50 aniversario de Laudio Ikastola a las 18:00 en el casino del parque de Lamuza. Invitamos a toda la comunidad educativa de la Ikatola a acudir a la presentación.*

*El libro refleja la trayectoria de la Ikastola hasta nuestros días a través de testimonios de padres, madres, trabajadoras y trabajadores y alumnado que ha estado implicado en el proyecto y ofrece además un amplio álbum fotográfico de cada época. Los testimonios recabados han servido también para la producción de un documental conmemorativo.*

*En la presentación Txabi Alvarado Bañares, exalumno que ha dirigido la redacción del libro, expondrá los ejes principales del proyecto y se estrenará además el documental que recoge los testimonios recopilados para el libro.*

### CALENDARIO

*Hemos complementado la publicación del libro ilustrando también el calendario de la Ikastola de este año con las fotografías recopiladas.*

*Como novedad, este año hemos insertado un pequeño cancionero interactivo que complementa las letras de canciones populares en euskera con códigos QR para escucharlas vía internet.*




## A LA VENTA EL LIBRO Y CALENDARIO DEL 50 ANIVERSARIO

*Libro y calendario están a la venta en la secretaría de la Ikastola en horario de 08:00 a 17:00. El libro tiene un precio de 15 euros y el calendario de 10, y pueden adquirirse de forma conjunta al precio de 20 euros.*

*El pago se puede realizar en metálico o a través del recibo de la Ikastola.*

**realizar pedido**